

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurune Saileko foru diputatuaren 243/2023 Foru Agindua, azaroaren 30ekoa. Onespena ematea luzatzeari jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako laguntza lerroaren 2023ko deialdia gauzatzeko eta justifikazio agiriak aurkezteko epea

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 14ko 63/2023 Erabakiaren bidez, jasangarritasun energetikoko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren 2023ko deialdia onetsi zen.

Zortzigarren puntuaren arabera, "dirulaguntzen eskaerari buruzko ebazpena emateko bi hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik, [...]".

Bederatzigarren puntuan honako hau erabaki zen: "ahalmena ematea Ingurumen eta Hiri-gintza Saileko foru diputatuari espediente honek eskatzen dituen eta Foru Gobernu Kontseiluari dagozkion administrazio egintzak eman ditzan, legez ezarritako salbuespenetan izan ezik, eta Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauan gastua baimendu eta antolatzeke ezartzen diren esku-menari eta mugari kalterik egin gabe".

Ondoren, deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 10eko 620/2023 Erabakiaren bidez ebatzi zen. Zortzigarren puntuan erabakienez, ordainketa egiteko eskatzen diren agiriak aurkezteko eta gauzatzeko gehieneko epea 2023ko abenduaren 1a izango zen.

Ikusirik 2023ko deialdia ebazteko ia 8 hilabete igaro zirela, eta ebazpena eman zenetik justifikatu arte epea bi hilabete baino gutxiagora murriztu dela, eta, beraz, kasuan kasuko erakundeei emandako jarduketak gauzatzeko tarte baldintzatu dela, 2023ko abenduaren 29ra arte luzatzea proposatzen da. Gehikuntza horrek ez du aurrekontu ondorioz izango.

Laguntza lerro hori arautzen duten oinarriak Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 27ko 40/2022 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren. 10. oinarriak honako hau jasotzen du:

"Dirulaguntza ematen duen organoak, behar bezala justifikatutako kasuetan, ordainketa justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan adierazitako baldintzetan, betiere horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie".

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Azaldutako guztian oinarrituta, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunekeo diputatu gisa eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Luzatzea jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako laguntza lerroaren 2023ko deialdia gauzatzeko eta justifikazio agiriak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 29ra arte.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 30a

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua
AMAIA BARREDO MARTÍN

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA